



LANGILE MINUSBALIATUENTZAKO ALDI BATERAKO LAN-KONTRATUA

ENPRESAREN DATUAK		<input type="checkbox"/> LANALDI OSOA		KONTRATU-KODEA	
IFK/IFZ/AIZ		<input type="checkbox"/> LANALDI LABURRA		4 3 0	
ENPRESAREN IZENA		IFZ/AIZ	KARGUA: (1)		
HERRIALDEA		JN./AND.	ENPRESAREN HELBIDEA		
UDALERRIA		POSTA-KOD.			

KOTIZAZIO-KONTUAREN DATUAK					
ERREGIMENA	PROB. KOD.	ZENBAKIA	KONTROL-DIGITUA	JARDUERA EKONOMIKOA	

LANTOKIAREN DATUAK					
HERRIALDEA			UDALERRIA		

LANGILEAREN DATUAK					
G.S.KO AFILIAZIO-ZENBAKIA		IKASKETA-MAILA		IFZ/AIZ	JAIOTEGUNA
BIZILEKUAREN UDALERRIA			BIZILEKUAREN HERRIALDEA		

Dagokionean, jaunaren/andrearen legezko laguntzaz,
- du IFZ/AIZ-, izanik (2).

AITORTZEN DUTE

Langileak

- Langilea minusbaliatua dela eta izaera onarturik duela, (3) emandako ziurtagiriak erakusten duenez eta enpresaburuarekin ez duela familia edo ahaidetasun-mailako harremanik (4).

Enpresak

- 42/94 Legearen 44. artikuluan xedatutako onurak baliatzen dituela eta:
- 2004-01-01az geroztik ez duela lanposturik amortizatu (5)
 - Zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzakoei dagokienez, egunean dagoela.
 - Badakiela kontratu hau indarrean dagoen bitartean abenduaren 30eko 42/94 Legean aurreikusitako arrazoiengatik lanpostuak amortizatuko balitu, kontratazio honi dagokion kuota-murriztapenerako eskubidea automatikoki galdu egingo lukeela eta amortizazioa gertatzen den unetik izaera orokorre ezarritako kontingentzia arruntengatik enpresa-kuotak ordaindu egin beharko dituela.

- 42/94 Legearen 44. artikuluan xedatutako onurez ez dela baliatzen.

Lan-kontratu hau sinatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela eta, ondorioz, gauzatzea erabaki dutela:

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Kontratutako langileak (6) gisa egingo du lan, (7)
..... talde/kategoria/maila profesionalan, enpresan indarrean dagoen sailkapen profesionalaren arabera.

BIGARRENA: Lanaldi arrunta honakoa izango da:

- Lanaldi osoa: Lanaldia asteko ordukoa izango da,(e)tatik(e)tara, legeak ezarritako atsedendaldiekin.
- Lanaldi laburra: Lanaldi arrunta ordukoa izango da. Egunean Astean Hilean Urtean . Lanaldi arruntak honakoak baino laburragoa izan behar du (8):
- Aldera daitekeen lanaldi osoko langile batena baino txikiagoa.
 - Aplikatu beharreko Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitako lanaldi osoa baino laburragoa.
 - Gehienezko legezko lanaldia baino laburragoa.

Laneko denbora honela banatuko da:

HIRUGARRENA: Kontratu honek (9) irauko du,(e)tik(e)ra(10) probaldia egongo da.

LAUGARRENA: Langileak (11) euro gordineko ordainsaria jasoko du guztira, honako alokairu-kontzeptu hauetan banatuta (12):

BOSGARRENA: Urteko oporren iraupena (13) izango da.

SEIGARRENA: 42/94 Legearen 44. artikuluan jasotako betebeharrak betetzen badira eta lanaldi osorako egiten bada, enpresak hiru urtez gehienez kontingentzia arruntengatiko Gizarte Segurantzaren enpresa-kuotaren honako hobaria izateko eskubidea izango du:

- % 75 enpresetan, langileen kopurua edozein izanik ere.
- % 100 enpresak kontratatutako lehen langilea denean, bere izaera ekonomikoa edozein izanik ere eta 2002ko urtarrilaren 1az geroztik bere zerbitzura langilerik izan ez badu.
- % 80, baldin eta kontratatutako emakumea 45 urtetik beherakoa bada; eta % 90, baldin eta 45 urte edo gehiago baditu.

ZAZPIGARRENA: Kontratu hitzartutako denbora, dagokionean, ados daitezkeen luzapenak barne, bukatutakoan iraungiko da (14).

ZORTZIGARRENA: Kontratu amaitutakoan langileak zerbitzu-urte bakoitzeko hamabi egunen baliokide den konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea izango du (abenduarien 30eko 42/94 Legearen 44.1. artikuluko 3. puntua).

BEDERATZIGARRENA: Kontratu honetan aurreikusten ez denerako aplikatu beharreko eta indarrean dagoen legeria bete beharko da, eta zehazki, uztailaren 9ko 12/2001 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarria (uztailaren 10eko BOE) –abenduarien 27ko 24/2001 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarriko hirugarren atalak aldatua (abenduarien 31ko BOE)–, abenduaren 30eko 42/94 Legearen 44. artikulua (94.12.31ko BOE) eta abenduaren 30eko 13/1996 Legea. Era berean, Hitzarmen Kolektiboan xedatutakoa ere aplikatuko zaio.

HAMARGARRENA: Kontratu honen edukia Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinaraziko zaio, sinatu eta 10 eguneko epean (15).

KLAUSULA GEHIGARRIAK

Eta jasota gera dadin, honen hiru ale egin dira ondoren adierazitako tokian eta datan, eta alde interesatuek sinatu dituzte.

.....(e)n, 20.....(e)koaren(e)an

Langilea

Enpresaren ordezkaria

Dagokionean, adin txikiokoaren legezko ordezkaria

- (1) Zuzendaria, Kudeatzailea, etab.
- (2) Aita, ama, tutorea edo bere kargua duen pertsona edo erakundea.
- (3) Ziurtagiria egin duen erakunde ofizialaren izena jarri.
- (4) Langileak ez duela familia edo ahaidetasun-mailako harremanik enpresaburuarekin, 42/94 Legearen 44.bi.2. artikulua araberaz.
- (5) Abenduarien 30eko 42/94 Legearen 44. Bat. 4. artikuluan –abenduarien 27ko 24/2001 Legearen Laugarren Xedapen Gehigarriaren hirugarren atalak aldatua– ezarritako baldintzetan lanpostuak amortizatu dituzten enpresek ezin izango dute uztailaren 9ko 12/2001 Legearen Hirugarren Xedapen Gehigarriaren (uztailaren 10eko BOE) babesean aldi baterako kontraturik egin.
- (6) Lanbidea adierazi
- (7) Lanbideak sailkatzeko enpresan indarrean dagoen sistemaren arabera dagokion talde profesionala eta kategoria adierazi.
- (8) Dagokion lekuan x jarri.
- (9) Ez dadila izan hamabi hilabetekoa baino txikiagoa eta hiru urtekoa baino luzeagoa.
- (10) Probaldia jarri gero, martxoaren 24ko 1/1995 Errege Dekretu Legegileak (martxoaren 29ko BOE) onartutako Langileen Estatutuko Legearen Testu Bateratuko 14.1. artikulua xedatutakoa bete beharko da.
- (11) Eguneko, asteko, hileko.
- (12) Oinarritzko alokairua eta alokairu-osagarriak.
- (13) Gutxienez: 30 egun natural.
- (14) Luzapenak, baleude, ez dira hamabi hilabetekoak baino laburragoak izango.
- (15) DATUEN BABESA - Eredu honetan jasotako datuek abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren babesa izango dute (abenduarien 14ko BOE).